

...eta **kitto!**

746 zkia. 2010-XII-30

ASTEKARIA

TOKIKOM

**Barruan
URTEKARIA
2010 hilezhile**



ZORTE Berri ON!

**Zure etxe-barruaren
onerako...**

AHOLKULARITZA eta GESTIOA

Tfnoa. 943 20 22 39



Mobila. 617 16 33 82

Faxa. 943 20 01 05

egolan.eibar@gmail.com


EGOLAN

Julian Etxeberria 7, 7-C



ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA
OSAKIDETZA - MUTUA - ASEGURUA ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

CRF AMOSTEGI





- * Fisioterapia
- * Logopedia
- * Kirol medikuntza
- * Osteopatia
- * Perineologia
- * Ama izateko prestakuntza



R.P.S. 28/07

Muzategi, 2 behea (EIBAR) Tfnoa eta Faxa. 943 20 34 46

E-maila: info@crf-amostegi.com - www.crf-amostegi.com



ERREFORMAK
PROIEKTUAK
SUKALDEAK
BAINUAK
ALTZARIAK
DEKORAZIOA




AL-BIDE
GREMIOEN KOORDINAKETA

CASANELLA

egongelak

%20

**GABONETAKO
PROMOZIO
BEREZIA**



Artarrilaren 15era arte

Tel. 943 20 04 43
Faxa. 943 20 14 11

www.casanella.com
Juan Gisasola, 16 - behea



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Felix Morquecho

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HAGIÑAK ERAKUTSI.- Mehatxu egin. Aurre egin. "Hartzeko zetsan guztiari, hagiñak erakusten zetsazen".

HAGIÑETAKO.- Haginetan emandako zartakoa. "Hagiñetako batekin lurrera bota eban".

HAINBESTIAN.- Ez ondo ez txarto. Gaztelarazko 'regular'. Gaur egunean hain zabaldua dagoen 'sin m ás'. "Eta? Zer moduz azterketia? Hainbestian".

HAINBESTIAN ERITXI.- Zerbait balekotzat hartu, zerbaiti nolabaiteko oniritzia eman. "Jan da edaniam dirua emotiari, tira, hainbestian zeritxon; baiña zeri ta medikutzari?".

ESKUTITZAK

URTEBERRI ON IRAKURLE GUZTIONTZAKO

Eskuartearen duzuen 2010eko azken alea da, urte-ari errebasoa ematen diona batez ere. **Hurrengo alea**, ohikoa denez, **urtarrilaren 14ean** kaleratuko da eta bihar egingo den XVI. Eibarko Kirol Sarien ekitaldia izango du protagonista nagusizat, kirolak urtean eman duen guztiarekin batera.

Bestalde, gonbidatuta zaudete bihar 12.00etan Por-

talean urtea amaitzeko egingo den aipatutako ekitaldira. Horrez gain, urtea bikain hasteko ez dago Urkora igotzea modukorik; lxuan, gainera, **10.00etatik aurrera hamarretakoa** izango duzue zain doan. Hori antolatzen duten Eibarko Klub Deportiboa eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen partez, Urte Berri On guztiari.

ERREDAKZIOA

asteka

HEMEROTEKA

esaldia

"Demagogia merkea. Ostalariak ez daude gure osasunaz edo eskubideez kezkatuta, euren irabaziez baizik. Hori dela-eta, legeen aurka ageri dira. Anarkistak ditugu. Inoiz ez diote polizia deitzen; inoiz ez dute inor salatzen. Enroilatu koadrila"

(Juan Mari Pastor, kazetaria)

"Gizarteak bere autosuntsiketarako erabakiak har dezake. Abuztuaren 1ean oporretan etxetik irtetzen dutenen buruan ez dago trafiko auto-ilarak osatzea, baina hori lortzen dute. Banakako inteligentziak ez du balio arazo kolektiboak konpontzeko"

(Jose Antonio Marina, idazlea)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

...eta Euskara E Gabon KATAI

KATEA:
10,60 euro

ZINTZILIKARIOA:
16,50 euro

SOKADUN
ESKUMUTURREKOA:
7,50 euro

KAUTXOZKO
ESKUMUTURREKOA:
37,75 euro

KATEA:
10,60 euro

ZINTZILIKARIOA:
30 euro

BELARRITAKOAK:
25 euro

KAMISETA BERTSOLARI BELTZA (MUTILA):
19 euro

KAMISETA BERTSOLARI LILA ETA BELTZA (NESKA):
22 euro

KAMISETA BERTSOLARI MOREA (MUTILA):
19 euro

AMANTALA (LAUKIAK):
T: 1, 2, 3, 4
32 euro

AMANTALA (OTSOA):
T: 1, 2, 3, 4
29,50 euro

ARGAZKI MARKOA:
8 euro

ARGAZKI MARKO HIRUKOITZA:
12 euro

ARGAZKI ALBUMA: 12 euro

HELBIDE-LIBURUA:
8 euro

OHARRAK:
8 euro

Etorri oparien zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara Elkart
URTARRILAK 3: Eskakerak egiteko azken eguna Orduategia:

IKUSI, AUKERATU eta ENKATU

kitto! Elkartearen metako KATALOGOA

Katalogoak dituen
irabaziak euskera
sustatzeko erabiliko
ditugu

HAUTSONTZIA:

6 euro

BURDINEZKO

MAHAI

GAINEKOA:

11,75 euro

TIRAGOMA:

3 euro

KARRAKA:

4,30 euro

KATILUA:

7,10 euro



**ARBOLARAKO
OLENTZERO:**

4 euro



ERRETIXINAZKO ONGI ETORRI:

6 euro





ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)

10.00-13.00 / 16.00-20.00

ARGUA EGIN!


DISKA ETA DVDAK



Industriagintzako argazkiak lehian

ARMERIA ESKOLAKO IKASLE OHIEN ELKARTEAK BOSGARREN URTEZ JARRAIAN ANTOLATU DU Industriagintzari buruzko argazki-lehiaketa. Parte hartu nahi duenak gehienez 3 argazki aurkeztu ditzake, inoiz saritu barikoak eta zuri-beltzean zein koloretan. Irudiak CD batean entregatu beharko dira eta formatoa, gehienez, 30x30 zentimetrokoa izango da. Lanak onartzeko azken eguna otsailaren 25a izango da (Armeria Eskolako Ikasle Ohien

Elkartea. Isasi kalea, 36. 20.600 Eibar, Gipuzkoa. E-maila: aaa@armeriaeskola.com). Argazkigintzan ezagunak diren lagunek osatutako epaimahaiak hiru sari banatuko ditu (700, 300 eta 200 euro) eta Ikasle Ohien artean aurkeztutako argazki onenarentzat 150 euroko akzesita dago aurreikusita.



Arrieta ahizpen hitzaldia

URTARRILAREN 11-N, 19.00-ETATIK AURRERA LOURDES ETA MENTXU ARRIETA AHIZPEK "ARRIETA METODOA" izenarekin ezagun denaren berri emango dute udaletxeko pleno aretoan. Beasainen jaiotako ahizpa biek jaiotzatik oso gaitz arraroa daukate, "Atetosis bikoitza" izeneko aniztasun funtzionala: Nafarroako Unibertsitateko Klinikari sakonki aztertu dituzte eta euren kasua munduan bakarra dela ondorioztatu dute. Ez daukate inolako kontrol-motorrik eta, beraz, ezin dute borondatezko mugimendurik egin. Gainera, Lourdes isila da eta Mentxuk zailtasun askorekin egiten du berba. Eta toki batetik bestera joateko gurpildun aulkia darabilte biek. Ia denerako laguntza behar dute, baina hala ere, elkarrekin komunikatzeko begiradan oinarritzen den sistema propioa asmatu dute eta horren inguruan jardungo dute gure herrian eskainiko duten saioan.



Dendarien Gabonetako zozketa

EIBARKO DENDARIEN ELKARTEAK ATZO EGIN ZUEN GABONETAKO ZOZKETAN jarraian aipatzen ditugunak izan dira irabazleak: Miren Arantza Avila Pinacho (Mixpil), Belén Aznárez Cobo (Calbetón Ientzeria) eta Juan Plaza Villar (Drach). Bakoitzak 1.000 euroko balioa duen erosketa-txartel bana jasoko du, elkarteko dendetan nahi duena erosteko. Zorionak hirurei!

AMAÑA
FONTANERIA

- KALEFAKZIO INSTALAZIOAK
- SUKALDEAK ETA BAINUAK
- GALDARA ETA BEROGAILUEN INSTALAZIOAK
- BUTANO, PROPANO ETA GAS NATURALAREN INSTALAZIOAK
- AZTERKETA ETA PROIEKTUAK ORDENADOREZ
- AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12
Tel. 943 201 930
fonta.amaña@gmail.com

GURIA

ELECTRICIDAD

MUNTAIA ETA PROIEKTU ELEKTRIKOAK



Matzaria, 2 - Pabellón 7 - Telf. : 943 70 88 95 - Fax: 943 82 00 27
www.electricidadgurria.com - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)

Dantzak eta Erregeen kabalgata




URTARRILAREN 5-EAN AILEGATUKO DIRA GURERA MELTXOR, GASPAS ETAK BALTASAR ERREGE MAGOAK eta, urteroko moduan, gauean etxeetan opariak banatzen hasi aurretik Untzagatik abiatuta kalejira egingo dute herriko kaleetan, Cielito Musika Bandakoek lagunduta, 19.00etatik aurrera. Baina horren aurretik Astelena frontoian egongo dira, 17.00etan hasita Ipurua Kiroldegiko Dantza Garaikide taldekoek, Ipurua Gimnasia Erritmiko taldekoek eta Eibarko Ballet taldekoek eskainiko dituzten dantzeekin gozatzen.



Guai gabonetako parkea


DOMEKAN ZABALDU ZITUEN ATEAK GUAI GABONETAKO HAUR PARKEAK, Armeria Eskolan. Barixakuan 19.00etan itxi bitartean, egunero zabalik egongo da parkea, 11.00etatik 13.30etara eta 16.00etatik 20.00etara. Besteak beste 2 eta 12 urte bitarteko umeentzat jolastokia, planetarium-a, zezen mekanikoa, Wii-a eta puzgarriak ipini dituzte ume guztien eskura eta, horiei laguntzen, tailerak (txiki-txikiena, irratia, gozogintza, eskulanak eta bide-heziketa) eta Eibar Ezagutzen galdera-lehiaketa antolatu dituzte. Egun osorako sarrerak 3'5 euro balio du.



Olentzero joan zaigu

ASKOK URTE OSOA EMANGO ZUTEN OLENTZERO NOIZ AILEGATUKO ZAIN, baina bestela ezin zitekeen moduan, ordu batzuek gure artean eman eta honez gero mendiko bere etxera bueltan da ikazkin maitea, datorren urterako hitzordurako prestatzen joateko. Olentzero hilaren 24an udaletxean egon zen hainbat umeri opariak eskura ematen eta, ondoren, Pantxika astoak eta beste askok lagundutako kalejiraren ondotik, gaueko lana amaitu eta etxerako bidea hartu zuen.

Arregi - Dominguez **ARRAINDEGIA**



Zorionak

Urte Berri On

Mariskoak
Arrain freskoa eta izoztua
Enkarguak hartzen ditugu
Ondarruko arraina



Rialtoko Merkatu Plaza
943 20 32 09

Bidebarrieta, 4
943 20 11 38

Aurreko 22xan Gordoaren seriea gure herriko 3. administraziñuan jausi zanian, ez jakun haiñ arrarua egin: ikusitta, batez be, urte guztian numeruen konbinaziñuekin eruan dogun martxia. Hasteko, martxuaren 1 In Primitibako konbinaziñoko sei numeruak asmatzen bakarra izan zan amañatar bat: berarendako izan ziran 11 millioi eta ixa 400.000 euro. Apirillian, Urkizuko periodikuen kioskuan beste ixa 6 millioi euro irabazi eban hor be Primitibako konbinaziñoko sei numeruak asmatu zittuanak.



Kazetari mordo bat zen Calbetónen Gordoaren zenbakia bertan saldu zela jakitean. / FELIX MORQUECHO

20 millioi eurotik gora banatu dira Eibarren 2010ean egindako zozketetan

Aurreko bixak sari potoluenak izanda be, urtian zihar izan dira beste batzuk eibartarri etorri jakuzenak: hasi eneruan loterixiak laga zittuan 120.000 euruekin eta Euromillioiak oin dala hillabete pasatxo laga zeskun 370.000 euruekin amaitzeko. Guztira, ixa 18 millioi euro jaso zittuan gure herrixak 79.250 zenbakixaren seriea gurera etorri aurretik.

3. Administraziño horretan, dana dala, aurretik be banatu dittue konformatzeko moduko sarixak. 2000. urtian 2.400 millioi

pezeta banatu eben bertan, hori 1988xan, Euskal Herri osua hartu eben ufalen urtian, loteriako lehelengo sarixa bueltau eta gero, billete guztiak bustitta eguazelako. 2008xan, bestalde, lehelengo maillako hiru boleto -sei zenbakixak asmatuta- bertan jausi ziran.

Hortik kanpo be, aurtan, esaterako, abuztuan 60.000 euro tokau jakozen Julian Etxeberriako administraziñuan bere boletoa bota eban bati. Eta, opor sasoia amaituta be, Bonolotuak beste horrenbestelaga

zetsan bost zenbaki eta konplementarixua asmatu eban jokalarixari.

Gabonetako Gordoa baldin bada be ospe haundixena dakana, badira beste joko batzuk diru gehixago laga izan dabenak. Hailanda be, sarixa ez da makala izaten: lehelengo sarixak 3 millioi euro emoten dittu (dezimua dakanak 300.000 euro jasoko dittu, hau da, 50 millioi pezeta). Bigarren sarixak millioi euro emoten dittu eta hirugarrenak millioi erdixa. Zeozer tokau bajatzue, aprobetxau. Eutsi ratxiari!

eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS
www.eitek.net

EITEK S.L.
Erakusketa: Bidebarrieta kalea 50
Zerbitzu teknikoa: Urtzaile z/g
(Aurrera eraikina, 2. lokala)
www.eitek.net

Bezeroarendako telefonoa
943 203090

LUCCI
ILEAPAINDEGIA
Tfnoa. 943 12 15 62
Bidebarrieta, 60
EIBAR

Boluntarioen salbatze-lanak

DOMEKAN ASUA ERREKA INGURUAN PRAKTIKAK EGITEN JARDUN ZUTEN EAEko De Galahad salbamendurako txakur-unitateko boluntarioek, tartean Valeriano de la Calle eibartarra eta Oker bere txakurra. Bertatik bertara ikusi dugunari jarraituta, beharretik kanpo, aisialdian euren txakurrak entrenatzen dituzten boluntario hauek obra-hondakinen azpian zein bestelako larrialdietan desagertutako per-



sonak salbatzeko etenbarik prestatzen dihardute eta une honetan Elorrión egoitza duen elkartekoek entrenamendu horietarako tokiren bat Eibarren izatea nahiko lukete, *"Matsarian dauden lantegi zaharrak horretarako oso egokiak dira, adibidez"*. Izan ere, larrialdietan euren laguntza ezinbestekoa izan daitekeen arren, oraingoz ez dute inolako laguntzarik jasotzen eta dena euren poltsikotik ipini behar dutela azaldu digute.



Astindukoak Erisonoren harira

ASTINDU EIBARKO HIRIGINTZA TALDEAK "ERISONO II" SENTENTZIAREN INGURUAN hainbat kontu argitzeko prentsaurrekoa eman zuen aurreko astean. EAEko Justizia epaitegiak berriki ezagutzera eman duen sententzian, besteak beste, *"formalitate berbaren inguruan gehiegizko erabilera interesatua"* egiten dela salatzearekin batera, *"ia hutsaren hurrengoko mailan laga duten herritarren parte-hartzeari emandako garrantzi ezarekin"* oso hasarre daude Astinduko ordezkariak eta, *"interes jakin batzuei jarraitzen dion sententziarekin"* euren desadostasuna berrestearekin batera, hasieratik esandakoari eutsi eta *"Teknikerrentzat beste alternatiba batzuk bazeudela"* diote oraindik ere.

urte berri on!



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk. - Tfnoa. 943 20 85 82
www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

Juan zan urriaren 27xan, Debegearen 25. urteurena ospatzeko lehelengoko ekitaldixan, Debabarrenako Gizarte Balixuen I. Sarixa emon jakon gure alkarrizketatuari. Goi-Argi emakumiendako alkartia sortzia, Cayetano Careaga Babestutako Taillarak martxan jartzia eta Patronato Eibarrésen egitten daben biharrak nahiko meritu dira.

TERE GANTXEGI, Gizarte Balixuen I. Sarixa:

“Hotzegixak gara eta ez gara bestietaz arduratzen”

- Zelan hartu zenduan sarixa zuri egokiztia? Ezustia izan zan zuretako?

Nerbixuak jota ibilli nintzan. Tilia hartu bihar izan neban trankiltzeko. Oin dala urte batzuk, Emakumiaren Mahaixak eta Udalak beste sari bat emon zestenian trankillago hartu neban. Baiña Debegeakuan, industrial guztiakin-eta, ni azken orrixa nintzan han, euren ipuiñen artian.

- Zelan ikusten dozuz holako sarixak?

Nik egitten dotena natural egitten dot; horrek ez dau saririk bihar. Inguruko jendiagaz arduratzia normala izan biharko litzake: jendiari, ezagutu barik be, laguntzeko gauzia ez bagara...

- Mercedes Kareagak asko esan nahi dau zuretako, ezta? Zu baiña nagusixagua zan, baiña urtetan izan dozu aldamenian...

Nire bigarren ama izan dala esango neuke; eta hill arte ez ninduan laga. Gauzak aurretik ikusten zittuan personia zan, kristautasunetik beti be: horregaittik sortu eban andrazkuen lehelengo alkartia estadu osuan, hori Francoren sasoiari. Lehelengo Sociedad Femenina Eibarresa izan zana gero Goi-Argi bihurtzeko. Arrateko bidetik ikusi

eban nun juango zan gure lokala eta izena be handik ipiñi zetsan: “Luz de lo Alto”.

- Emakume askori lagundu detsazue zuen lokaletik urte guzti hauetan, ezta?

Sukaldaritzia klasiak emoten zittuan Felisa Loiola maestria zan horretan. Josten be askok ikasi dabe han... Ezkontzeko preparaziñua be egitten genduan, zer ez? Domeketan eskursiñuak egitten genduazen, autobusetan-eta. Emakume askorendako atiak zabaltzia ekarri eban Goi-Argik. Gaurko Emakunde jakingo baleu...

- Cayetano Careaga Taillarak zabaltzia be ez zan lan erraza izango. Eta gero Gureak Taldian sartzia...

Hamengo mutikuak Bergarara jua bihar izaten ziran orduan sasoiari; guretako erosua ez bazan egunero hara juatia, euren dako bez. Sei lagunekin zabaldu zan, baiña txiki geratu eta aldameneko etxia hartu bihar izan genduan. Holan, 50 bihargiñ asko ziran guretako eta Gureak-en estrukturan sartu giñan; baiña, hori bai, republika independente moduan. Hor ibillitako askok eta askok zelan agurtzen naberen oindiokan!

- Solidaridadia zelan ikusten dozu gaur



Tere Gantxegik Patronato Eibarrésen dihardu lanian 1972tik. / SILBIA HERNANDEZ

egun? Bolondresen premiñia aittatzen da behiñ eta barriro...

Hotzak gara eta ez gara bestietaz arduratzen. Asko bihar dogu, aldamenekua baiño dotoriago ibiltzeko. Gu gaztetan abarkakin juaten giñan Matsarixara, ez genduan kanpora jua biharrik. Felix Markiegi abadiak eta Juan Ibargutxik zenbat erakutsi zeskuen. Entreniduta ibiltzen giñan: gaztetan gozua izan genduan. Hori bai, pretensiño haundirik ez genduan.

- Zure ustetan, zertan egin dau aurrera gizartiak eta zertan atzera?

Erosuago bizi gara, egixa da, baiña guretzat nahi dogu dana, emoteko ez. Nik personia ikusten dot eta ez dot ulertzen bateri laguntzeko aukeria euki eta aldamenetik pasatzia ezer egin barik. Kasuak izan dittut gazte baten gurasuak hill eta, zelako egoerian geratuko dan jakiñ eta gero, laguntzen billa hasi eta handik eta hemendik, bakarrik dakazen eskubidietatik tiraka, aurrera egittuko soldata politta geratu jakona. Bardin bardin personia baja dakana ezagutu eta ikusi bajiarekin jarraitu biharrian, dakan gaitotasunarekin jubilatze eskubide osua dakala... Eta harrittuta geratzen naiz holaquak ez detselako agertzen jendiari. eskubide osua dakenian horretaz disfrutatze.

- Zu Patronatuan pozik biharrian, ezta?

Gauza askoren premiñia dakagu; alkatiari be behin baiño gehixagotan esan detsagu. Baiña, famelixa bat gara eta ondo hartzen dogu alkar; ondo konpontzen gara.

Markel Olano diputadu nagusixaren eskutik jaso eban sarixa Gantxegik. Epaimahaixak holan definidu eban Tereren ibilbidia: “Emakume ona, eskuzabal, ekintzaillia, zintzua, bakezalia, solidarixua, maittabera, euskalduna... Sustrala euskaldun senduak izan arren, mundura irekixa daguana. Bizitza osua emon dabena jendiari laguntzen. Debabarrenan errotu nahi dittugun lau balixuak eziñ hobeto ordezkatzan dabelako: osotasuna edo integridadia, errespetua, ekintzaillitasuna eta kolaboraziño eta kooperaziñua”. Hori guztiori eta erabagixa, gaiñera, aho batez hartu eban epaimahaixak. Bide oparua laga dau, beraz, omenduak.



2011. urtea oso berezia da guretzat, 15 urte betetzen baititugu odontologia alorrean. Eskerrak eman nahi dizkiegu gure bezero guztiei profesional eta pertsona moduan hazten laguntzearen.

RPS: 124/10



*"Aldaz Hortz Klinikak
eta bertoko profesional-taldeak
GABON ZORIONTSUAK
opa dizkizue"*

15 URTE ERABERRITZEN aho-hortzen osasunaren zerbitzura, ilusio berarekin

Kalitatezko diagnosi eta tratamendua, pertsonalizatua eta banakakoa, gure apostu eta nortasun ezaugarria dira, 1995. urtean Lasarte-Orian gure ibilbideari ekin genionetik. Bezeroei gure zerbitzua gerturatzeko asmoz, 2008an egoitza berria ireki genuen Elgoibarren eta gaur egun, hogeita hamar profesionalak dihardugu zerbitzuaren kalitatea, gertutasuna, berrikuntza eta berritasun teknologikoen aplikazioa eskainiz.

Aldaz Hortz Klinikak ISO 9001:2000 kalitate-ziurtagiria dauka Lasarte-Oriako egoitzan 2005az geroztik, eta horri esker antolaketak irizpideak jarri ahal izan ditugu, gure funtzionamendua ez ezik baita gure zerbitzuak hobetzeko ere.

Aldaz Hortz Klinika bezerotik gertu dago eta bertan dihardugun profesional guztiak, harreragileak, higienistak, laguntzaileak, protesi-teknikariak, odontologoak eta medikuak, tratamendurik egokienak eskaintzen dizkiegu gure bezeroei, tratu atseginarekin.

Aldaz Hortz Klinikari gu guztion esperientzia eskaintzen dugu teknologiarik berritzaileenarekin batera; medikuntzan %100 lortzea oso zaila bada ere, porrotik ez egiteko esfortzua egiten dugu, eta bezeroak uneoro jasoko du egingo zaion tratamenduaren berri, baita gerta daitezkeen arazo berri ere.

Ohiko odontologia tratamendua eta protesi erauzgarriak eta finkoak egiteaz gainera, odontologiarik aurreratuenaren edozein espezialitate ere eskaintzen dugu, besteak beste odontopediatria haurrentzat, ortodontzia heldu eta haurrentzat, odontologia estetikoak, edozein motako protesientzako hortz-inplanteak, eta baita gure espezialitatea diren **berehalako funtziodun implanteak**, hau da, egun bakar batean inplante eta hortz finkoak ezartzea. Funtzio hori oso ezaguna da, baina gutxitan aplikatzen da zaila delako ongi egitea. Hala ere, Aldaz Hortz Klinikari 5 urtetik gorako esperientzia dugu alor horretan, eta berehalako funtzioduneko 2000tik gora inplante ezarri ditugu, %96,5eko arrakastarekin (%95eko batezbestekoa gainditu dugu beraz).

Gure taldea etengabe hari da trebatzen. Lasarte-Oriako egoitzan formaziorako gela dugu eta bertan trebatzen dira bai gure talde profesionala eta baita kanpoko hortz-profesionalak ere, gure klinikako odontologo eta zirujauen eskutik.

Azken 15 urte hauetan aurrera egin dugu tratamendu eraginkoragoak eta erosoagoak eskainiz, eta protesi finkoko inplanteen

errehabilitaziorako bisturirik gabeko kirurgia-tratamenduetan espezializatu gara, hortzoia ireki gabe ordenagailuz gidatutako kirurgiak eginez. Kirurgiaren aurretik, plangintza egiten dugu 3D-n eta horrek adierazten digu zehatz mehatz non ezarri behar ditugun hortz-inplanteak. Horrela infekzio eta ebakuntza osteko mingarriak ekiditen ditugu, hazte-faktoreetan aberatsa den plasma erabiliz hobeto orbaintzen direlako zauriak.

18.000tik gora pazientek bermatzen dute gure profesionaltasuna, eta aurrekontu doitu eta finantzazio eta deskontu mota ezberdinen onuradun dira.

Jakin badakigu gaur eguneko egoera ekonomikoa ez dela ona eta hortzetako edozein tratamendu egiteak zein kostu dakarren. Horregatik deskontuak egiten ditugu familia, enpresa eta pensiodunentzat.

Inplanteen tratamendu guztietan %15eko deskontua egiten dugu eta lehenengo bisita, azterketa, erradiografia periapikal eta urgentziatzeko azterketak doakoak dira.

943 366 377

www.dentalaldaz.com




San Bartolome, 22 (Elgoibar)

Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)



URTARRILA: lurrikara Haiti ezin txiroagoan



MARTXOA: atentatua Moskuko trenetan



MAIATZA: alkondara gorrien protestak Thailandian



OTSAILA: zorraren eragin istilutsua Grezian



APIRILA: Poloniako presidentea hilda istripuan



EKAINA: Israelen erasoaldia Turkiako flotillaren aurka

ZONA WIFI

DISCO **LUR PE** BAR

music

943 20 61 43

bar **aldatz**

ALDATZ
taberna

Martxa nahi baduzu... Zatoz!
Zure zain gaude

San Juan, 3



UZTAILA: Kosovoren independentziaren onespena



ABUZTUA: AEBetako ejerzittoa Iraketik kanpora



IRAILA: Chavezen garaipen berria hauteskundeetan



URRIA: meatzarien erreskate arrakastatsua Txilen



AZAROA: ejerzito marokoarren sarraskia Aaiun-en



ABENDUA: bi Koreen arteko ika-mika arriskutsua

etxolajatetxea@hotmail.com
Erreserbak: 943-207019
Txirio kale, 1

etxola

JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak



MUGICA
ITURGINTZA




AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Gabonak pasatuta, egutegiko lehenengo jaiak, Azitaingo **San Anton jaiak** giro onean joan ziren. **Erregeen kabalgata**, berriaz, euripean eta hotz handiarekin ospatu zen. Amañan **Iru garabiak** hartzen zuen eraikina eraitsi zuten, bariantearen 3. faseko beharrei bidea zabaldua. Udalak 3.000 euro bidali zituen **Haitira**, hango larrialdi egoerari aurre egiten laguntzeko. Auzokoak elkartekoek urtero **Gureak** lantegikoei eskainitako bazkarian 100 lagun baino gehiago batu ziren. **Itzaltze analogikoa** rekin bat eginda, Euskal Telebistako seinalea bakarrik digitalizatu hasi zen. Bestalde, San Sebastian egunaren inguruan **danborradaren** kontzertua egin zen Coliseoan. Urte osoan bidelagun izan dugun krisiaren haritik, **ABC** enpresakoek hilaren hasieran greba mugagabea hasi zuten, 7 beharginen kaleratzea salatuz. **Udal Artxibo** berriztatua ofizialki inauguratuta geratu zen.



JOSE ZUGASTI

“Garrantzia ematen diot eskultura transparentea izateari, espazioarekin agresiboa ez izateko”

DANBORRADAREN KONTZERTUA COLISEOAN



SAN ANTON JAIKAZ AZITTAIÑEN

ITURRI
ARDOAK
ETXERA ERAMATEN DUGU
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto
Tel. 943 12 05 87

EGOKOP, S.L.L.
FOTOKOPIAK - LASER - KOLOREA
PLANOEN ERREPRODUKZIOA
ENKUADERNAZIOA - PLASTIFIKATUAK
FAX ZERBITZUA - CD-TIK INPRESIO
DIGITALA Z/B - PEN-DRIVE-TIK
INPRESIO DIGITALA Z/B

EGOKOP, S.L.L.
Bidebarrieta, 46 - behea
311 postakutxa 20600 EIBAR
Tel. eta Faxa: 943 20 86 12
egokopsll@euskalnet.net


SAN BLAS BEDEINKAZIÑUA SAN ANDRESEN



Lagun Taldeak "Y yo con estos pelos!" ikuskizunaren emanaldi bikoitza eskaini zuen. Ohiturari eutsita, herriko abesbatzek eta ikasleek **Santa Agedari** koplak eskaini zizkieten, oraindik ere **San Blas** opilen usain goxoa gure artean zegoela. **Zinema operatzaileek**, berriz, urteroko bilera egin zuten San Juan Bosco-ren babespean. Amañan, **bariantearen 3. faseko** beharren ondorioak somatzen hasi ziren, lur-jausi eta guzti. Urtarrila amaieran aurkeztutako 33. Antzerki Jardunaldiak **Aratosteen** eskutik ekin zioten bideari, giza-irudien erakustaldiarekin. **Gaztetxea** uztarazteko lehen saiakerarekin batera hasi ziren protestak. **Olio**a jasotzeko edukiontziak ipini zituzten. **Egunkariaren aldeko** elkartasun eguna izan zen otsailaren 20a. Udalbatzak 34 milioi euroko **aurrekontua** onartu zuen eta **Arrateballe Bizirik**-ek mila sinadura baino gehiago batu zituen. **Amañan eta Urkin Haurreskola** bana zabaldu ziren.



KOKO-JANTZIXEN JAIXA ARATUSTIETAN



MAITE OTXOANTESANA
 "Txilen astindu gintuen
 8,8 graduko lurrikarak
 zulagailu indartsu baten
 zarata egiten zuen"

BAMETSA
 Toribio Etxebarria, 4

EMAKUME ETA GIZON MODA
Valenciaga
 KONFEKZIOAK
 ☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Emakume langilearen nazioar-teko eguna gogoan, hainbat ekitaldi burutu ziren gurean, tartean herriko hainbat **andra artistaren lanak** batu zituen Topalekuko erakusketa. Kopuruari begira andrazkoek gehiengo osatzen duten **Ego Gain zaharren egoitzakoek** lan-hitzarmenaren aldeko borrokarekin jarraitu zuten eta **Auzolagunekoek** ere protesta egin zuten, euren lan baldintzen hobekuntza eskatzen. Martxoaren 11an, bestalde, Juan Antonio Mogel **ikastola sortu zela 50 urte** bete ziren. **Arrate Kultur Elkarteak**, ikasturteroko martxari jarraituta, bertsolariari eskainitako egitaraua antolatu zuen Bertso Astean. Udaletxean **NAN egiteko** zegoen bulegoa ixteko erabakiaren berri ere martxoan izan genuen. Abontzako Iturrixa Elkarteoen eskutik **udaberriari ongietorria** emateko jaia ospatu zen. Eta jai asko alaitu zituen **Juanito Barrutia "Arno"** trikitilaria hil zen, 75 urterekin.



KIRMEN URIBE
 "Literatura bizirik dago idazleek erabili ez den kontatzeko era baten bila jarduten dutelako"

TALLARRA GAZTETXIAREN ALDEKO BORROKIA



EMAKUME BIHARGIÑAREN INGURUKO ERAKUSKETIA

Afilialu

www.ccoo-euskadi.net

CCOO
 enbaldintza langile kolektiboak

CCOO-ek Euskadin elkarrizketa sozialaren eta negoziozko kolektiboaren alde egiten du

lifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es

EROSI MODA PUNTOAN

PUNTOAN JANZTEKO AUKERA:

- Aparteko kalitatezko artileak: ingelesak, alemaniarrak, italiarrak, etb.
- Mertzeria fina
- Osagarriak: mangafandak, bufandak, poltsoak, txano bereziak, ...

Artile

WWW.ARTILEPUNTO.COM
INFO@ARTILEPUNTO.COM
 Bidebarrieta, 18 943-207227


REPUBLIKIAREN ALDEKO ZELEBRAZIÑUA



II. Errepublikaren aldarrikapenaren 79. urteurrena gogoan, hori gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu ziren. Eibarko **Udal Txistularien Bandak** lehenengo kontzertua eman zuela 75 urte bete ziren apirilaren 16an. Eta Aste Santuaren bueltan herritarrentzat benetan kolpe latza etorri zen: batetik, 30 urteko gazte eibartarra **Marokon** hil zen, auto batek harrapatuta eta Elgoibar eta Eibar artean gertatutako istripuan, berriz, beste **lau gazte** eibartar zendu ziren. Baina denak ez ziren berri txarrak izan: **Kokein** taldekoek Japonian bira egiteko aprobetxatu zituzten jai egunak. Errebalen erabili barik zegoen orubean **aparkalekua** zabaldu zuten. **Toribio Etxebarria Sariak** ere apirillean banatu zituzten eta, ekonomia arlotik aldendu barik, **Errenta** Aitorpenaren kanpaina abiatu zen. Eta ediziotik ediziora herri ezberdinetan antolatzen den Gipuzkoako **Bertso Eskolen Eguna** gurean ospatu zen.



ISTRIPUAN HILDAKO LAU GAZTIERI AGURRA



ELENA MARTIN
 “Oh Happy Day-n gauza mordoak ikasi ditugu eta, horrez gain, herriak ikaragarri babestu gaitu”

ERREHABILITAZIO ZENTRUA

Zentruko sendagilea:
 Ricardo Ibarra

- Errekuperazio funtzionala
- Fisioterapia ariketak


Eibarko
Patronatua



- Osakidetzarekin konkordatutako Zentrua
- Mutua eta Aseguru guztiekin egiten dugu lan

Urkizu 9 / Tel. 943 12 12 80 / Faxe. 943 12 03 58 / patronatorehabi@terra.es

Oh Happy Day! ETB-ko lehiaketaren finalera ailegatu zen Eibar-ko **Koro Gaztearen** inguruan benetako fenomeno soziala bizi izan zen herrian. Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen eskutik irudia protagonista izan zen berri ere “**Argazkilaritza Maiatzean**” egitarauaren barruan antolatutakoei esker. Eta munduko kultura aniztasunaren ispilu bihurtu zen Untzaga, bertan egindako **Kultur Arteko Jaiari** esker. Jaiekin jarraituta, **Santa Kurutzeko**kin hasi eta **Galiziakoak**, **Isidro Deunaren** omenezkoak eta **Abontzakoak**, bata bestearen jarraian ospatu genituen, **Euskal Jaia** ahaztu barik. Eta jai giroan garatu zen Astelena frontoiak hartu zuen **Internet Egunaren** topaketan. Jairako gogo gutxiago izan zen Amañan, barianterako **leherketak** hasi ziren eta. Ia aldi berean hasi zuen bidea **Hirigintzarako Batzorde** Aholkulariak. Eta ia batera hil ziren abade bi: **Jesus San Miguel** eta **Miguel Angel Basurko**.



FELIPE GISASOLA
 “Hasieran kostua dela eman badezake ere, ingurugiroari erreparatzea onura izaten amaitzen du”

GANTXILLIA PROTAGONISTA TANTANEZ-TANTAN



EUSKAL JAIKO DANTZAK KALIA HARTU EBEN

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL



**Bulego altzariak
 eta materiala**

PAPERDENDA

Tel. 943 365892
 Faxa. 943 371686
 Mobila. 687 828590
 fatima@manpel.com
 www.manpel.com



Iradi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29


SANJUANETAKO TXUPINAZUA ETA ONDORENGUAK



Urkiokoe bidea zabaldu zieten **San Juan** eta **San Pedro** jaiei. Ikasturtea amaituta, sariak banatzeko sasoiaren bada: DBH-koentzat antolatzen diren **Armeria Eskola Sariak** aurten La Salle eta Itziokoe eraman dituzte; eta saria jaso zuten, baita ere, **Injeniaritza Eskolako** hiru ikasleek "Felix Sopelana" Memorialean. Eta batzuek ikasturtea amaitzen duten bitartean, beste batzuentzat ikasten hasteko egunak ailegatzen dira: aurten 38 urte bete dituzten **UEU-ko udako ikastaroetan** eskaintza zabala egon da oraingoan ere. Eta oporrak hartu aurretik, **Kaleetan Kantuz** abesbatzakoek bailara mailako topaketa antolatu zuten. Jai giroarekin jarraituz, Eibar Rugby Taldekoen **Garagardo Feria** zabaltzeko ohorea ...eta kitto! Euskara Elkartearena izan zen oraingoan. Hila-beteetako martxari jarraituta, baina, **metalgintzako** beharginen protestentzat tartea ere izan zen.



KIROLA EUSKARAZ BIZITZEKO IKASTOLAKO JAIXA



TERESA AGIRREAZALDEGI
 "Egunkaria auziarekin, beste ezer baino gehiago, amesgaiztoa bizi izan dugu euskaltzaleok"

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
 ☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

● **KOROAK** ● **ESKELAK** ● **HILARRIAK** ● **AGIRIAK**

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txalixa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 faxo: 943 202564


EIBARKO KIROL SARIEN XVI. edizioa

Bihar, barixakua, abenduak 31, dagoeneko ohitura denez, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien edizio berri batek bere zita izango du Eibarko kirol munduarekin. Hamaseigarrena izango da biharkoa.

Portaleko Areto Nagusian, goizeko 12.00etan hasiko den ekitaldian, modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute; modalitateei dagokienez, 24 sari banatuko dira eta, euskeraren saria eta sari bereziarekin batera, 26 izango dira guztira emango direnak.

Lerro hauetatik, eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol taldeei, urte guztian egiten duten lanarengatik.


SARI BEREZIA



Inma Urkiola

Klubi Deportiboko Atletismoa


ARETO-FOBALLA



Aitor Pérez

Eibarko Areto-Foballa


ARKU TIRAKETA



Alexander Martín

Arkulariak


ATLETISMOA



Juan Jose Malvar

Eibarko Klubi Deportiboa


AUTOMOBILISMOA



Julia Agirre

Escuderia Eibar

ERRUGBIA



Alfredo Cobo

Eibar Rugbi Taldea


ESKIA



Ana Mallagaray

Eibarko Klubi Deportiboa


ESKUBALOIA



J. A. Barruetabeña

Juventud Deportiva Arrate


FOBALLA



Alex Albistegi

Eibar Kirol Elkarte

HERRI KIROLAK



Agurtzane Etxaniz

Debemen

HIRU TXIRLO



Jose Mª Larreategi

Asola Berri

IGERIKETA




Nerea Ziaran

Urbat-Urkotronic

abenduak 31, barixakua, 12.00etan, Portalean


JUDOA



Julen Ramón

Judo Kalamua


KARATEA



Iratxe Bravo

Urki-Amaña Karatea


MENDIA



Fernando Errekalde

Guiar-t


PILOTA



Eric Lantz

Eibarko Klub Deportiboa

SASKIBALOIA



Eduardo Azpiazu

VI Baloncesto Eibar


SQUASH



Jon Arana

Eibarko Klub Deportiboa


TIRO OLINPIKOA



Javier Ircio

Club Tiro Dinbi-Danba


TRIATLOIA



Andoni López

Eibar Triatloi Taldea


TXIRRINDULARITZA



Ane Ziaran

Debabarrena


WATERPOLOA



Iñigo Unzueta

Urbat-Urkotronik


WU-SHU



Miren Vidal

Ttatt Gimnasioa


XAKEA



Mikel Baena

Eibarko Klub Deportiboa


EUSKERA SARIA



Antton Aldalur


Klub Deportiboko Mendia

GIMNASIA ERRITMIKOA (Ipurua Gimnasia Erritmikoko Senior mailako taldea)




Iratí Alonso, Carmen Gamundi, Olatz Ibaibarriaga, Olatz Laskurain, Jone Pérez

Udako jaietako irudiak hartzeko puntu-puntu ekin zion bideari **eibartv.com** webguneak, urtebete lehenago itxitako KTB-k lagatako hutsunea betetzeko asmoz. Akondia baserrian **San Pedro konjueroa** egin zuten eta, egutegian aurrera eginda, **San Kristobal**go jaiak eta **Lambretten VII. Topaketa** eskutik helduta ailegatu zitzaizkigun, jarrera ospatu ziren **Amañako** jaiak bidea zabalduz. Hortik aparte, **Ciclocásica** izenburuari jarraituta, antzinako 10 bizikleta batu zituzten. Plastikoen erabilera jaisteko asmoz, 11.000 **poltsa berrerabilgarri** banatzeko kanpaina abiatu zen. **Mundialaren** aitzakiarekin Hego Afrikaraino joandako eibartarren ahotik jaso genuen hango berri. Eibarren eta Lizarran jarraipena izango zuen **Beorlegiri** buruzko erakusketa zikloari ekin zioten Zarautzen. Eta oporren aurretik zozketatu zituzten **Asola Igartzako** babes ofizialeko etxebizitzak.



CARMEN KILNER
 “Ingalaterrako gobernuak bertako herritarrek behartuta hartu zituen hemengo umeak”



AMAÑAKO JAIXAK INGURUKO JENDETSUENAK



LAMBRETTAK ETA SAN KRISTOBALGO JAIXAK

TXOKO
Giro alaiak Gabon Zaharreen!
UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR

UNBE TABERNA
 * Pintxoak
 * Bokatak
 * Bazkariak
 Telf: Osoa 33 ☎: 943 30 00 81
EGUNEROKO MENUA


KANPOKO PISZINA HANDITTUTA AZKENIAN



Aurreikusita zegoen **obra-kopuruari** begiratuta nahiko lasaia izan behar zuen abuztuak bestelako sorpresa ekarri zigun eta, besteak beste, trafikoari zein oinezkoei traba ugari eragin zizkien lan txiki askorekin bete zituen herriko erdialdeko kaleak. Konpondu eta azalera handiagoarekin ekainaren 19an zabaldutako **kanpoko igerilekuak**, berriz, oso harrera ona izan zuen eta bataz beste eguneko 660 lagunek erabili zutela eman zuten aditzera Kirol Patronatoko ardura-dunek sasoi amaitu baino lehen eta itxi aurretik, irailaren 20rako 40.500 erabiltzaileak aise gaudituko zirela aurreikusten zuten. Eta gustura oso freskatuko ziren **Azitaingo** auzoan, Andra Mari jaien harira 750 kiloko harriari tiraka ibili zirenak, idiek proba irabazi eta atsedean hartzeko beta ailegatu zitzaizaien.



OBREN NAGUSITASUNA BESTE BEHIÑ OPORRETAN



MIREIA ARRATE
 "Idazten berandu hasi banaiz ere, hurrengo hoge urteotan bide hori jorratu nahi dut"



Larragest

INMOBILIARIA

api 353

Bidebarrieta, 12

Tel.690 61 07 15

Kurtsoari ekin aurretik **Arrateko jaietan** primeran pasatu zuten askok eta jarraian Baserritar Jubilatuen eta Kofradiaren eguna etorri zen. Arratetik aldentuta baina herrian bertan **Bien Aparecida** Kantabriako babeslearen jaiak ere ospatu ziren. **Arrate izenekoe**k urteroko moduan eguna jai giroan eman zuten. Eta **Aginagan** sanmiguelatarako prestatzen zihardutela, **Barrenakoe**k euren kaleko jaiak berreskuratu zituzten. Jai girotik erabat aldentuta, oso bestelako gertakariak laga zizkigun irailak: Arrate egunaren bezperan hil zen 92 urterekin **Salvador Marzana** eta 47 urte besterik ez zuen **Miguel López de Guereñu** zinegotzia ere handik egun batzuetara hil zen. **Aniaiz Ariznabarreta** gaztea, berriz, atxilotu eta espetxera sartu zuten. Inkomunikatuta egon zen bitartean torturatu zutela salatzekeo idatzia udaletxeko pleno aretoan irakurri zen, Udalbiltzaren mozioa bozkatzekeo pleno berean.



JOSE RAMON TREBIÑO
 “Caritasen gure laguntza jaso dutenen 25.000 lagunetik ia 18.000 etorkinak dira”



HERRIKO AMATXORI EGIN BIHARREKO BISITIA



ANIAIZENGANAKO ALKARTASUN ERAKUSTALDIXA

GAUR
 ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA KONPONKETA ELEKTRIKOAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea 20600 EIBAR
 Telefonoa 943 20 62 40 Faxe 943 05 69 23

Ibarkurutze, 5
 943 20 37 15
 www.muebleskarlos.com

altzariak eta koltxoiak


EGUN OSOKO SAGARDO EGUNAREN JAIALDIXA



Ego Ibarra batzordearen web-gunean irakurtzeko moduan dagoen Eibarko memoria historikoaren inguruko proiektua aurkeztu zuten eta egun gutxira **“Izarren Argia”**, Pilar Calvo eibartarraren modura beste askok Saturrarango kartzelan bizi izandakoa jasotzen duen filma estreinatu zuten Coliseoan. Aurkezpenekin jarraituta, itsueroi moldatutako **semaforo berriak** ezagutu genituen ONCE-koen eskutik. Eibarren ez ezik, beste herri askotan bat egin zuten **Zero Pobrezia** kanpainarekin. Debabarrenako Nagusien Kontseiluak **Jose Antonio Arkotxa** izendatu zuen presidente. Gastronomiak aparteko pisua izan zuen, Galiziako Etxeak antolatutako **enpanada** lehiaketa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik ospatutako **Sagardo Eguna** eta Deportiboko mendizaleei esker egindako **jardunaldi mikologikoak** aintzakotzat hartzen baditugu.



JARDUNALDI MIKOLOGIKUAK HARTUTAKO ASTEBURUA



IBON UZKUDUN
“Pablo Ibar-ek, benetan errudun den ala ez alde batera lagata, barnetik hitz egiten dizu”

DEBA BEHEKO ELKARTEA
 ESKUALDEKO BATZORDE ERAGILEA


Sindikatura zuen zerbitzura

Urte berri on!
ZORIONAK

 Isasi, 2 - 1. -EIBAR-
 ☎ 943 82 07 82
 Faxa. 943 82 04 09


“Denon Sindikatua”
Ketesa 2010
bulego eta kolokabitaterako instalazio osorik eta materiala
aitzariak, sarkiak, uaxparak, liburutegiak...
bulego materiala
enpresetan banatzen dugu

Entzuteko Anbua, 12


48900 Eibar

Tf. 943 21970 / 943 21970

fax. 943 27668

 email. bigotz@ketesa2010.com


Ipuruan **Eroski** berria jasotzeko beharregatik hilabeteetan itxita egon zen **errotonda** zabaldu zuten, denda berriaren inaugurazioa baino egun batzuk lehenago. **Indalezio Ojanguren** argazki lehiaketako sari nagusia Reusera joan zen eta Portalean izan ziren saritutako lanak. **Munduko Paisaiak** kanpainako ardatza Bolivia izan zen eta aurreko hilaren amaiera aldera abiatutako XVIII. **Musikaldiak** Jose Ramon Orozko tenorea omendu zuen. Omenaldi gehiagorako tarteak izan zen: **Krabelin** jatetxeak maridaje jardunaldietan **Jesus Artolazabal** sukaldariari eskainitako saio berezia antolatu zuen. Musikariek, berriz, **Santa Zezilia** gogoratu zuten eta azaroaren 25aren inguruan, berriz, emakumeenganako **indarkeria** gogoan hartu eta salatzeke ekimenak antolatu zituzten. **San Andres** jaiekin agurtu genuen hilabetea, Maki-lauaren Kofradixiak ...eta kitto!-ri egindako izendapenarekin.



GURUTZ LINAZASORO
 “Garuna bere
 osotasunean ezagutzeak
 gizaki hobeak izaten
 lagunduko gaitu gerora”



BASARRITTAR JANTZITTAKO SAN ANDRES JAIXAK



HAUNDITTUTAKO EROSKI BARRIXAREN INAUGURAZIÑUA

Laguntza Teknikorako
 Zerbitzu Ofiziala

EIBARSAT

Elektrodomestiko txikien mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, elektrodomestiko txikien piezak, eta abar...

IFAR KALE 8
 Tel. eta Faxe. 943 20 67 17
 20600 EIBAR

**BOLINTXO
 OKINTEGLIA
 GOZOTEGIA**

Eguneroko
 ogia



☎ 943 20 40 66 (Errebal, 9)

☎ 943 20 42 24 (Amaña)


ERREKONozIMENDU EKITALDIXA ROBERTO PEREZ JAUREGIRI



Abendu hasieran aurkeztu zuten **Julen Zabaletaren** marrazkieta-ko asko biltzen dituen "Eibar, Tintaz eta Lumaz" liburua, **Tallarra** gaztetxea 8 urtetan hartu zuen eraikina eraisteko beharrak hasi ziren egun berean eta ia-ia **polo teknologiko** berriaren lehenengo harria ipintzeko ekitaldiarekin batera. Enpresa munduarekin jarraituta, **Nuria López de Gereñu** Confebask-eko buru berria izango dela jakin genuen. **Roberto Pérez Jauregi** modu berezian gogoratu zen haren heriotzaren 40. urtemugan. Bestalde, aurten Olenzero inoiz baino lehen etorri zaigu bisitan, "**Olenzero & Co!**" musikari esker eta **Pirritx eta Porrotx** ere gurekin izan ziren. Eta **Gabonak** gerturaztearekin batera, kontzertu bereziak eskaini dituzte hainbat taldek. Jai giro ederrean, bazkariarekin agurtu zuten ekitaldiz betetako urtea ikastolakoek eta zer ospatu ez zaie falta "**Pekin-Express**"-en garaile izan diren Sandra eta Belindari.



EUSKERIAREN EGUNA KANTUEKIN APAINDUTA



ANGEL REKALDE
 "1512an Nafarroa konkistatu zuten arte 18 urteko etengabeko erresistentzia izan zen"



MAPFRE

JUAN LUIS GARMENDIA
 ERA GUZTIETAKO ASEGUURUAK

GARMENDIA
INMOBILIARIA

PISUAK eta LOKALAK **salgai** eta **alokairuan**

San Juan 7, behea ☎ 943 203 413 Faxa: 943 200 324 -EIBAR-

– Urtea hasi eta segidan ipini zuten sarean Euskarara Itzulitako Idazlanen Bilduma Susa argitaletxeak, "Euskarari ekarri" atari berrian. Euskarara itzulitako 913 idazleren berri ematen du **EKARRIAK.AR MIARMA.COM** atariak eta 2.197 idazlanen erreferentziak ere jaso dituzte.

– Euskara hutsezko 50.000 artikulurekin marka berria hautsi zuten **EUSKARAZKO WIKIPEDIAK** urte hasieran. Mundu mailan marka hori gainditzen 45. hizkuntza izan zen gurea.

– Otsailean Mikel Peruarenaren "Ez obeditu inori" lanaren inguruko literatura tertulia egin zen **HARIXA EMOTEN** ...eta kitto! Euskara Elkartearen programari jarraituta. Ikasturtean beste egile eta lan batzuekin jarraipena izan dute Antxon Narbaizak gidatu ohi dituen saioek.

Bestela ere, ikastetxe eta euskaltegietan euskal idazle ugari izan dira ikasleei hitzaldiak eskaintzen. Eta euskaltegien esku-

tik antolatu zen euskerazko berba politena aukeratzeko lehiaketa: "**ANTXITXIKETAN**" aukeratu zuten. Lehiaketekin jarraituz, I. Euskerazko Lip Dub lehiaketa antolatu da gurean eta Udal Euskaltegiekoek irabazi zuten. Eta Ipurterre lehiaketan 1.043 idazlan jaso zituzten.



Harixa Emoten: literatura tertulia.

– Euskeraren alde egindakoak asko izanda ere, erasoak ez dira desagertu eta, besteak beste, **LAN ESKAINTZA** publikoetan euskararen balioa jaisteko



Euskeraren Eguna kantuan ospatu zen aurten egun osoan.



Probintziako Bertso eskolen VI. Eguna Eibarren ospatu zen.

saiakera egin zuten eta Nafarroan Euskaraz Bizitzeko Eskubidea aldarrikatzeko hainbat ekimen egiteko premia izan da.

– Gipuzkoako Bertsozale Elkarateak antolatuta, apirilaren 25ean **GIPUZKOAKO BERTSO ESKOLEN VI. EGUNA** ospatu zen gurean. Bertsolaritzarekin jarraituta Eibarko bertsolariak eta Etxeberrikoak desafioan ipini zituzten maiatzean Bide-Alden egindako afarian eta eskoletako umeek jaialdi bikoitza eskaini zuten Coliseoan, ikasitakoak jendeaurrean erakutsiaz.

– Apirilean **EGUNKARIA AUZIAN** epaitutako bost lagunak errugabe jo zituzten, sententzian Egunkaria ixteko hartutako erabakia "gehiegizko neurria" izan zela onartuta.

– Aurten 30 urte bete dituen Euskal Herrian Euskaraz-ekin **EUSKARAZ BIZI EGUNA** ospatu zen Etxarri-Aranatzen.

– Administrazioari begira, **ERRENTA AITORPENA** euskeraz aurkezteko kanpaina ipini



Euskaraz Bizi Eguna Etxarrin.

zuten martxan eta Eibarko epaitegikoek herritarrak behargini euskeraz egitera animatzeko deia zabaldu zuten.

– Eta ikasturte berriarekin batera eta EBPN planari jarraituta **HAINBAT HITZALDI** eskaini ziren, euskararekiko motibazioa indartzeko asmoarekin.

– Aurtengo **EUSKARAREN EGUNA** kantuz ospatu dugu eta, ohiko ekitaldietatik kanpora, "Kontalaria!" ekimeneko kamioia bisitan izan genuen.



Super BM IFA taldea,
zure eguneroko erosketak



Julian Etxeberria, 14-16

Tel. 943 70 15 90



JOSE VICENTE PEROSANZ
M^a LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA


TEL. 943 204 194

FAXA. 943 820 006

Urtzaille, 1 20600 EIBAR egurenyasoc@sarenet.es



URTARRILA:
Munilla Donostiako apezpiku



OTSAILA:
ziklogenesi leherkorren eraginak



MARTXOA:
Jon Anzaren gorpua aurkitu zen




APIRILA:
Egunkariakoak aske azkenean




MAIATZA:
Pasabanen 14 zortzimilakoak



EKAINA:
Realaren igoera 1. mailara



UZTAILA:
inoiz baino entzierro garbiagoak




ABUZTUA:
txosnen itxiera eguna Bilbon



IRAILA:
Julia Roberts Zinemaldian



URRIA:
pentsiodunen protestaldia



AZAROA:
Motxo itsasontziaren istripua



ABENDUA:
kontrolatzaileen greba zubian

Euskal Okela
salmentarako
harategi
baimendua



Harategia-Urdaitegia
OBERENA

Bidebarrieta, 20
943 20 16 69

Oier Araolaza Eusko Jaurlaritzak osatu berri duen Kulturako Euskal Kontseiluko partaidea da. Dantzaren mundua jorratu du, batez ere, Kezka Dantza Taldeko partaideak; hala ere, kultur arloko beste esparruen jarraipena egiten du berak eta elkarrizketa honetan horren inguruko hausnarketa egiteko aprobeixatu dugu aukera.

OIER ARAOLAZA (Kulturako Euskal Kontseilua):

“Jaiaren ardura herriarena izan behar da, ez erakundeena”

- Aukera berriak zabaltzen dizue Kulturako Euskal Kontseiluan egoteak?

Aholkularitza organoa da berez eta kultura planak kontrastatzeko balio du, batez ere. Urtero birritan batuko da gutxi gorabehera eta operatiboa izateko handi samarra deritxot, 50 bat lagun baikaude. Hala ere, gure ahotsa ahalik eta toki gehienetan entzutea komeni denez, aukeraz baliatuko gara. Euskalgintza eta dantza tradizionala dira guri bereziki interesatzen zaizkigun esparruak, baina kontziente gara erakundeetako kultura politikokoan euskalgintzak duela indar gehiago eta dantza ez dela lehentasuna.

- Oraingo Eusko Jaurlaritzarekin urrats berriak eman dira arlo horretan?

Aurreko gobernuarekin sektorekako mahaiak zeuden eta han ere banangoen. Lan zehatzagoak abiatu genituen, baina orain ez daude martxan. Gai pertsonala baino, sektoreari egiten zaion errekonozimendua da; dantzak ahotsa merezi baitu, baina beti ez da aintzat hartzen. Festa edo jaiaren ideia ez da kontsideratzen kultura hitz larriekin; eta, krisiarekin, horrek oraindik garrantzi gehiago hartzen du.

- Dantzak zein egoera bizi du gaur egun? Biziberritzekotan, nondik jo beharko luke?

Kontraesana dago horren inguruan. Urte askotan ibili gara bueltaka krisian ote dagoen. Horren sorburua zetoren sasoi oparoan aurkitu dezakegu: Francoren sasoiaren zuen sinbolismo kutsuarekin transmisio esparrua inolako hesi barik eman zen. Eta badirudi boom horrek gero hondamendira eraman gaituela; nik normalizazio prozesua ikusten dut hor. Esaterako, arlo guztietan Europako gizartea kontsideratu bagintezke, dantza tradizionalan, Britainiarekin eta Kataluniako eskualde batzuekin batera, gu modukorik ez dago. 18 urteko gazte batek jasotzen dituen erreferentziekin (Lady Gaga edo Messi), dantza konpatiblea da; horregatik jarraitzen du dantzatzen. Eibarren bertan, foballean dihardutenak kenduta, zein beste esparruk ditu parte-hartzaile gehiago? Antzerkian akaso jende gehiago dabil? Bertsolaritzan ba ote dago gazte gehiago?

- Euskal kultura, orokorrean hartuta, zelan ikusten duzu?

Nahiko gertutik jarraitzen dut eta Huheziko hainbat diagnostiko eta lerroekin bat nator. Hor euskarazko kulturak behar du lehentasuna izan eta dantza ere euskarazko kulturgintzako esparru sinbolikoan txertatuko nuke. Hor lehentasunak priorizatu eta diskri-



Araolaza kritiko agertzen zaigu gizarte zibilaren paperarekin kultur ekimenaren inguruan. / KOLDO MITXELENA

minazio positiboa erabili beharko litzateke, genero alorrean onartuta dagoen moduan, beldurrik gabe

- Lete hil da. Kontziente gara galeraz?

Ez. Eta ez Leteren kasuan bakarrik. Ez Dok Amairu beraren iraultzaren indarra galdu da; gaurko gazteek ez dute erreferentzerik. Dena dela, horrelako artisten desageretzeak ez du esan nahi bere lana amaitu denik. Letek jarraituko du eragiten.

- Zelan bizi duzu Eibarko egoera, kultura esparrutik begirata?


Aukera aldetik, interesgarria; azpiegiturei begira, ezin hobeto. Udalaren jarrera ere, protagonismoa lortzera baino, ekimena beste eskutan lagatzearena izan da. Azken aldian, baina, bide hori galtzen doala uste dut: burokrasiak gidatutako joera ez dakit ez doan nagusitzen, gizarte zibila tontotzen doan neurrian. Erosokerian erortzen goazela esango nuke, pasibotasunean. Eta, ekintzaila izateari laga eta gero, hartzaile izateari ere laga diogu. Jaiarena, festarena, da adibide esanguratsua: jaiak Udalak antolatu behar baditu, ez goaz bide honetik. Azkenean, mozorrotzeko baimena eskatu beharko dugu... Ez dakit nondik sartu zaigun festaren ardura erakundeena dela; hori horrela, ez dago jairik. Julio Caro Barojak zioen moduan: “Ha muerto el Carnaval. ¡Viva el Carnaval!”.



Lehendakariaren harrera atzerriko euskaldunei

PATXI LÓPEZ LEHENDAKARIAK ASTELEHENEAN HARRERA EGIN ZIEN ATZERRIAN BIZI DIREN hainbat euskal herritarri, tartean AEB-etan bizi diren **Javier Agirresarobe eta Amaia Arberas eibartarrei.**

Nueva Yorken bizi den sopranoak, gainera, pianoarekin lagunduta "Hator hator" Gabon kanta eskaini zien ekitaldian batutakoei. Agirresarobek, bestalde, argazkilaritzan egindako ibilbidearengatik Jaurlaritzak eman eta lan kontuengatik jasotzerik izan ez zuen "Euskal Herritar Unibertsala" saria jasotzeko aukera izan zuen oraingoan, Los Angeles-etik egun batzuk etxean emateko etorri dela aprobetxatuta.



Urteko azken kanpai-hotsak

GABON ZAHARREAN URTEA AGURTZEKO EUSKAL TELEBISTAK EMANGO DUEN SAIO BEREZIA gidatzen izango da **Ibon Uz-kudun eibartarra.** Iaz Barakaldon grabatutako programak izan zuen arrakastarekin animatuta, orain egun batzuk, hilaren 17an grabatu zituzten urteko azken gauean ikusiko ditugun irudiak, oraingo honetan Donostiako Alderdi Ederren. Euskal Telebistako ikusleentzat oso eza-gunak diren pertsonaietako asko batuko dituen saio bereziarekin bat egitea erabakitzen duenak, beraz, Donostiako udaletxeko erlojuari begira agurtuko du urtea.

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA
644 kolegiatu zkia.




clinicacalbeton@euskaltel.net

calbetón
hagin klinika

DESKONTU BEREZIAK
eskaintzen dizugu


Zure
HORTZ-KLINIKA
berria

protesiak
implanteak
ortodontzia
periodontzia
endodontzia



Fermin Calbeton, 6 - 1. A
Tel. / Faxa: 943 03 33 03

Hamar urte bete ditu CodeSyntax enpresak eta, hori ospatzeko, azaroan Twitter ardatz izan zuen "Hedabideen eta sare-sozialen bidegurutzean" izenburuko jardunaldia antolatu zuten Azitaingo industrialdean duten egoitzan. Jardunaldira interneteko arlo hori ondo baino hobeto menperatzen duten aditu bi gonbidatu zituzten: Huhezi eta Mondragon Unibertsitateko Joxe Arantzabal, hedabide molde berrien gainean jarduteko eta Goienako Iban Arantzabal, Twitter-ek komunikatzeko formatu gisara eskaintzen dituen aukerak azaltzeko. 10 urteko ibilbidea ospatzeko aitzakiarekin antolatutako jardunaldia Codesyntax-ek sortu eta garatu duen azken proiektua, Umap izenekoa aurkezteko baliatu zuten.



Umap: CodeSyntaxen 10 urteak ospatzeko

Doan eskaini zuten jardunaldira gerturatu ziren 40 bat lagunei ongietorria enpresako gerenteak, Eneko Astigarragak eman zien eta, sarrera modura, enpresaren 10. urteurrenaren gainean berba batzuk eskaini zituen. Besteak beste, enpresaren hastapenak gogora ekarri nahi izan dituzte 10. urteurrenaren harira: gaur egun ezagutzen dugun enpresa izatera ailegatu aurretik, hiru lagunek abiatutako "abenturaren" ondorioz jaio zen Codesyntax. Hala ere, behargin kopuruari begiruta enpresa txikia izan arren, hasiera hasieratik bertan garatzen joan ziren proiektu propioen garrantzia oso handia izan zen, bai erabilgarritasunari begira, baita gizartean lortutako oihartzunari begira ere: euren eskutik jaio ziren, besteak beste, Eibartarrak zerrenda, euskerazko lehenengo bloga eta baita Gipuzkoan garatutako lehenengo blog komunitatea. Badira bost urte

Tagzania ezagutzera eman zutela: mapak sortzeko proiektu gisara jaiotako hori on-line geolokalizatorako merkatuari eskaintako "spin-off" bilakatzera ailegatu da. Eta 2010ari agur esan aurretik, une honetan internet arloan punta-puntakoa den zerbitzuetako batean, Twitter-en oinarritutako produktua aurkeztu nahi izan dute: Umap.eu.

Jardunaldiaren izenburuan aipatutako hedabideen eta sare-sozialen bidegurutze horretan, unean uneko denbora errealean edo 'realtime' delakoari jarraituta informazioa kudeatzeko tresna indartsua da Umap.

Luistxo Fernández-ek egindako aurkezpenaren azaldutakoari jarraituz, "Umap edo, zehatzago esateko, bere lehen garapena den eu.umap.eu, Twitterreko euskarazko jardun guztiaren batzailea da". CodeSyntax-ek garatu duen produktu berria Twitterrekin mezuak jaso eta prozesatzeko gai

den produktua, alegia. Produktuaren lehen webgunea euskarazko eu.umap.eu instantzia da, baina gehiago etorriko direla iragarri dute sortzaileek. Besteak beste, honako aplikazioak dauzka produktu aurkeztu berriak: Twitterreko erabiltzaile euskaldunak detektatzeko metodo bat da eta sortzaileen ustez potentzialki Twitterren dabilzan euskaldun guztiak harrapatzeko gaitasuna dauka. Horrekin batera, erabiltzaile horien tuit edo mezu guztiak denbora errealean jaso eta horien artean euskarazkoak diskriminatze sistema ere bada. Eta, horrez gain, jasotako mezuetan termino eta gako/trend esanguratsuenak konputatzeko metodoa ere bada. Duda barik, oraindik askori arrotzak egingo zaizkion berbez jositako tresna berriak, aurretik sortu dituzten besteak bezala, zeresan ugari emango du aurrerantzean eta batek baino gehiagok erregular erabiliko du berandu baino lehen.

Zuei esker jai hauek bereziagoak dira

urkotronik
Urte berri on

Akate Albari Akorta Amigü Amigü Artola Jaietza Azaia Jaietza Birjñape Bodega Urri Buzas Aires Cañterri Jose Luis Casa Galicia Caserio Casino Casino Ibañecruz Diana Dragón de Oro Eibariko Klub Deportibea Eibariko Merkatu Plaza Ego-Gain Ekora Erroka Erromos Etorri Gurtal Gura-Kalote Gurti Hodel Inaki Sagardotegi Izaia Jaietza Jaietza Urkoaga Jubiletuak Urkoaga Kaka Kaiton Karrika Katu-kale Kendepe KIE-KIE Kiolegia Kitta Kokekor Kuitu Lanos Lurpe Mazarin Moxo Ochi Ojays Ongi-Elom Orbela Paulaner Bierhaus Portalea Punto y Aparte Riuja Rumbia Ryder Taberna de Luis Taa-Taa Temasa Trinkete Tureipe Tximula Txoko Urkizu Vila Vivaldi Xania Xek Zelai-Bida

Juan jaku 2010. urtia eta normala da atzera begirada egittia 365 egun hauetan zihar gertatu jakuna erreparatzeko. Atzera begiradia gero aurrera gogotsu begiratu ahal izateko, pasautakuaz gozatu edo hortaz ikasteko. Pasau da 2010a, baiña 2011.a dator oiñ. Urte barri on!

2010ian zer izan da berezixa zuretako?



HARITZ ORTEGA
37 urte
medikua

Urte osuari begiratzen hasiz gero, duda barik inportantiena famelixa haunditu barri dogula izan da, oin dala 25 egun bigarrenez aitta izan naiz eta hori oso gertakari pozgarria izan da.



NEREA ANTIXIA
8 urte
ikaslia

Neretako bai izan da urte berezixa, eskolan ipuin bat idatzi eta premixua emon destelako Agenda 21-ian.

IRATXE BARRUTIA
36 urte
administratibua

Holan, pentsatzen hasitta, ez dot aparteko garrantzixa dakan ezer gogoratzen. Beste barik, gorabehera bariko urtia izan da neretako.



BITTOR ASTIGARRAGA
57 urte
bihargiña

Holan, urtia osotasunian hartuta, urtia normal jua da, aparteko ezer barik. Zezer aittatzekotan, neretako inportantiena mailla politikuan bizitzen dihardugun girua da, ia behingoz konponketia datoren.



PSIKOLOGIA — SEXOLOGIA

Ana Oiarzun Zabaleta



AHOLKULARITZA eta BITARTEKARITZA

BIKOTEA: gatazkak,
dibortzioa, ...

FAMILIA:
gurasoak/semi-alabak, ...

Blas Etxebarria 2 - behea
Telf. 943 20 08 20 Mobila. 635 74 62 50

EGOITZA NAGUSIA
Bilburieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa laboa
Egokibon (Signo poligonar)
Partikular, mitua eta osaguri ebaki zerbitzuak
Korak - Eskelak - Uteurrinako eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleen hartzen ditugu
Nazio eta Nazioarteko traxelak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketak laboa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951



Nesken Debabarrena indartsuagoa

LEIRE OLABERRIAK TALDEAN JARRAITUKO DU eta, horrez gain, Débora Gálvez eta Xari Rodríguez fitzaketek asko indartuko dute taldea datorren denboraldirako. Juanjo Sebastianek jarraituko du zuzentzen Katearen Egunean aurkeztu zen Debabarrena-Gipuzkoa taldea eta, aipatutako hirukotearekin batera, Ane Santesteban, Irene San Sebastian, Itsaso Leunda eta Saioa Olite dira taldeko txirindulari indartsuenak.



Errugbian garaile Donostian

GARAIPEN GARRANTZITSUA ATCO. SAN SEBASTIANEN aurka Hierros Anetxe Eibarko taldeak lortutakoa; batez ere, igoera faserako sailkapena lortzeko helburuari eusteko balio diona lidasaren taldeari. 15-17ko emaitza horrekin, eibartarrek zazpi puntura dituzte promozio postuak, 30 puntu joan daudenean oraindik.

Narbaizarendako Deba Arroko pilota txapelketa

LAUAREN BARRUAN JOKATUTAKO TXAPELKETA horretan, set bi bereganatu zituen Iker Narbaizak eta bakarra Tolosako ordezkariak. Hala ere, gauzak zail jarri zitzaizkion Deportiboko pilotariari (lehenengo set-a 6-8 galdu ondoren, bigarrena 4-7 galtzen joan zen azkenean 8-7 irabazteko). Azken set-a 4-0 irabazi zuen eibartarrak.




Xala eta Zubieta dira gaur egungo txapelak.

Binakako txapelketaren partidua zapatuan eta domekan

LERRO HAUEK IDAZTERAKOAN BIKOTEAK ZEHAZTU BARIK bazeuden ere, Astelena frontoiak txapelketa horretako lehen jardunaldiko neurketa bi eskainiko ditu: lehenengoan Xala aurrelariak jardungo du eta bigarrenean Irujo txapelak. Partidu nagusiez gain, etziko jaialdian Retegi Bi / Arruti eta Aritz Lasa / Ladis Galarza bikoteek jardungo dute, nor baino nor; etzidamu, bestalde, Rico IV.a / Argote eta Jaunarena / Larrinaga.

OREKA TERAPIA ZENTRUA

Urki, 17-19
Tfnoa. 943 20 86 06



ESKU TERAPIAK. ARIKETA POSTURALAK.

Javier Azpillikueta. Esku terapeuta.
Osteopatia estrukturala, Kirol masajea, Esku terapeutika, Masaje reflexogenoa eta Terapia kraneo-sakralea *diplomata*.

METABOLISMOAREN AZTERKETA. DIETA PERTSONALIZATUA. PISUAREN KONTROLA.

Silvana Huegun. Nutrologoa. ☎ 656 71 61 19
Dietetika eta Nutrizioa *tituloduna* Nafarroako Unibertsitatean; Naturopatia *diplomata*.

MEDIKUNTZA NATURALA. AKUPUNTURA ETA HOMEOPATIA.

Ricardo Arriola. Medikua.
Akupuntura eta Homeopatia *diplomata*. Sendabelarrekin tratamenduak.

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua



CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA


☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

- | | |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 8 Pediatria |
| 2 Zirugia | 9 Psikiatria |
| 3 Dermatologia | 10 Radiologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 11 Traumatologia |
| 5 Análisi Klinikoak | 12 Koloproktologia |
| 6 Ortodontzia | 13 Erizaintza |
| 7 Otorrinolaringologia | 14 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |


BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, OLATZ, urtarrillaren 6xan lau urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MIKEL, urtarrillaren 1ian hamar urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, UGAITZ, hillairen 28xan zure lehelengo urtia egin dozu-eta. Alaitz zure arrebia eta famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, GARI, hillairen 23an gure artera etorri ziñan-eta. Zorionak Lucia, Asier eta etxeko guztieri



Zorionak, EKHI, urtarrillaren 3an hiru urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.

SUDOKUA

3			5			8	
7		5		9			2
8					6		7
			6				1
		6		2		5	
4					1		
6			8				3
	3			6		2	5
	2				3		9

HILDAKOAK

- Josefa Arrieta Txurruka. 92 urte. 2010-XII-21.
- Benita Arteagoitia Dobaran. 87 urte. 2010-XII-24.
- Jose M^a Ibarra Goikoetxea. 80 urte. 2010-XII-25.
- Maria Blanco Vega. 101 urte. 2010-XII-25.
- Ines Gisasola Agirrebeña. 86 urte. 2010-XII-27.
- Antonio Gabilondo Nuño. 91 urte. 2010-XII-27.
- Maritere Nazabal Atxa. 83 urte. 2010-XII-27.

JAIOTAKOAK

- Ainara Pérez Escudero. 2010-XII-12.
- Julen López Ucin. 2010-XII-14.
- Dennis Márquez Fernández. 2010-XII-16.
- June Sukia Lizarralde. 2010-XII-16.
- Gari Corrales Ezenarro. 2010-XII-23.
- Ander Milikua Zalduegi. 2010-XII-23.
- Josu Cid Agirre. 2010-XII-23.

zinea Coliseoan

30ean: 20.30
31n: 19.00
1ean: 22.30
2an: 17.00/19.30
3an: 20.30

"Agnosia"

Zuzendaria: **Eugenio Mira**
 Aktoreak: **Eduardo Noriega, Barbara Goenaga, Felix Gómez, Martina Gedeck**



Bartzelona, XIX. mendea; Joana Prats-ek agnosia gaixotasuna du. Arazo neuropsikologiko horren ondorioz ez du ikusten eta entzuten duena behar den moduan ulertzen. Txarrena, berak baino ez dakiela bere aita zenaren sekretu garrantzitsua...

30ean: 20.30
31n: 19.00
1ean: 22.30
2an: 17.00/19.30
3an: 20.30

"Adele y el misterio..."

Zuzendaria: **Luc Besson**
 Aktoreak: **Louise Bourgoïn, Mathieu Amalric, Gilles Lellouche, Jean-Paul Rouve**



1912. urtean, Adele Blanc-Sec kazetariak gustoko ditu abentura handiak. Egipton ibilia da, era guztietako momiak aztertzen. Bitartean, Parisen ezinezkoa zirudiena gertatu da: pterodaktilo bat urten da 136 milioi urte zituen arrazatziatik...

30ean: 20.30
31n: 19.00
1ean: 22.30
2an: 17.00/19.30
3an: 20.30

"The tourist"

Zuzendaria: **Florian Henckel**
 Aktoreak: **Angelina Jolie, Johnny Depp, Paul Bettany, Timothy Dalton**



Frank ezustean dabil Europan, bidaiatzen. Ezuste handiagoa izango da Elise ezagutu eta berarekin harremana hastea. Baina ezustek ez dira beti benetakoak, Elise-k badu bere asmoa, eta bai Parisera zein Venezuelara bidaiara aurreikusita zituen...

3an: 17.00

"Shrek, felices para siempre" 3D

Zuzendaria: **Mike Mitchell**
 Pertsonaiak: **Fiona, Shrek, Asno, Lilian...**



Shrek-ek aspaldiko bizitza faltan botatzen du; horregatik tratua egingo du Rumpelstiltskin-ekin. Baina tratua uste baino txarragoa izango da eta, esaterako, Fionak ez du ezagutzen Shrek gaixoa... Bere nahiak sortutakoa atzera botatzerik bai?

horoskopoa

ARIES

Modu ezin hobean amaituko duzu 20010a eta hobeto hasiko duzu 2011.a. Urte ederra izango da zuretzat, udaberria batez ere.

TAURUS

Gabonak oso zoriontsuak izango ez badira ere, 2011. urtea oparora izango da zuretzat, bai arlo ekonomikoan, bai maitasun kontuetan.

GEMINI

Olentzerok ez badizu ezer ekarri, zerbaitengatik izango da. Ea horietariko urtean hobeto portatzen zaren. Olentzero adi egongo da.

CANCER

Aldaketa handiak urte berrian. Lasai hasiko duzu 2011. urtea, berritasun handirik gabe, baina aurrera joan ahala egoerak buelta emango du.

LEO

Betikoa da. Betiko proposamenak urte berriari begira. Eta horietariko zenbat bete dituzu bizitza guztian? Ba tira, hobe ahoa itxita badaukazu.

VIRGO

Bizitza zeharo aldatuko dizun egoera bat biziko duzu 2011. urtean. Erabaki garrantzitsu bat hartu beharko duzu. Ondo pentsatu.

LIBRA

Ez duzu ahaztuko 2010a. Hainbeste gauza gertatu zaizkizu, hain politik denak! Ahaleginak egin datorren urtea berdina edo hobea gozateko.

SCORPIUS

Olentzero joan da, baina trankil, opari politagoak jasoko dituzu egunerokoan datorren urtean. Astroak zure alde egongo dira-eta.

SAGITTARIUS

Ez duzu tristurarako momenturik izango 2011. urtean. Irtezekotan pozez irten gozatu zaizkizu malkoak. Zortekoa zu!

CAPRICORNIUS

2011. urtea dagoeneko, zeinen azkar pasatzen den denbora! Bizitza ahalik eta hobeto aprobetxatu. Zoriontsua izaten saiatu zaitetz.

AQUARIUS

Urte berria dator, baina gauzak ez dira gehiegi aldatuko zure bizitzan. Denak berdin jarraitzeak, behintzat, lasaitasuna emango dizu.

PISCIS

Urte bidaiaria izango da zuretzat 2011.a. Inoiz imajinatu ez duzun lekuetan egongo zara eta momentu bereziak igaroko dituzu bertan.

Eguena 30

UMEENDAKO ZINEA 17.00.- "Monstruos contra alienígenas". Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

TAILERRA

17.00.- Eskulan tailerra, umeentzat. Artisau Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).

Barixakua 31**KIROL SARIAK**

12.00.- Urteko kirolari onenei saria emateko ekitaldia. Portalean.

SAN SILBESTRE

16.15.- San Silbestre lasterketa. Aixolako urtegian.

Zapatua 1**URKORA IGOERA**

10.00.- Urte Berriari ongietorria ematera Urkora igotzen direnentzat hamarretakoa doan, lxuan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eta Klub Deportiboaren eskutik.

Domeka 2**IPUIN KONTALARIA**

17.00.- Nerea Ariznabarreta ipuin kontalariaren saioa. Artisau Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).

ERROTA GAZTELEKUA

17.00.- San Silbestre lasterketa. Aixolako urtegian.

Astelehena 3**UMEENDAKO ZINEA**

17.00.- "Lluvia de albóndigas". Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

ERROTA GAZTELEKUA

17.00.- Futbolin txapelketa. Errota gaztelekuan.

Martitzena 4

UMEENDAKO ZINEA 17.00.- "La edad de hielo 3". Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Eguaztena 5**ERROTA GAZTELEKUA**

17.00.- Gabonetako opariak birziklatutako materiala erabilia egiteko tailerra. Errota gaztelekuan.

ERREGEEN KABALGATA

17.00.- Ipurua Kiroldegiko Dantza Garaikide taldea, Ipurua Gimnasia Erritmiko Taldea eta Ballet Eibarrés-en emanaldia Astelena frontoian.

19.00.- Erregeen kabalgata, Cielito Musika bandak lagunduta.

ERREGE EGUNEKO JAIALDIA

18.00.- Jaialdia, txokolate-jana, oparien zozketa... (bazkideentzat). Beheko Tokia jubilatuen etxean.

Eguena 6**ERROTA GAZTELEKUA**

17.00.- Txiste txapelketa, merendola eta lagun ezkutua. Errota gaztelekuan.

Barixakua 7**UMEENDAKO ZINEA**

17.00.- "Cómo entrenar a tu dragón". Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Zapatua 8**ANTZERKIA**

20.00 eta 22.30.- "Vaya Semanita". Sarrera: 22 euro (Juanito, Kili Kili, Caserio eta Portalea tabernan eta Kros Sports-en). Amañako jai batzordeak antolatuta. Coliseoan.

Domeka 9**KONTZERTUA**

19.00.- Napoka Iria taldearen disko berria grabatzeko kontzertua. Zabalotegi aretoan (Bergara).

Astelehena 10**IKASTEN**

16.00.- Sendabelarren Foroa. Portalean.

Martitzena 11**IKASTEN**

10.00.- XI Asier Errasti Laburmetraia Jaialdiko lanen proiektzioa. Hezkuntza Esparruan.

HITZALDIA

19.00.- "Motivación, superación e inclusión social" (Arrieta Metodoa, begiradan oinarritutako komunikazio sistema azalduko dute). Udaletxeako pleno aretoan.

Eguaztena 12**IKASTEN**

10.00.- Mendi-ibilaldia: Azkoitia-Zumarraga. Irteera Ardantzako tren geltokitik.

Eguena 13**IKASTEN**

10.00.- "Valores de la música moderna a partir del rock" (2. zatia), Maite Arroita jauregirekin. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizan.



erakusketak

- Abenduaren 31ra arte
NEKANE LAZKANOren "Roma G9" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- LUIS LARRAKOETXEA**ren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- Urtarrilaren 9ra arte
EIBARKO KLUB DEPORTIBOko Argazki Taldekoen erakusketa. *Portalean.*
- JULEN ZABALETA**ren "Gerra aurreko Eibar" marrazki erakusketa. *Portalean.*
- IMA ELORZA**ren eskultura erakusketa. *Untzagako Jubilatut Etxean.*
- Urtarrilaren 10era arte
MIKEL OROZKOren "Berlin in Furs" argazki erakusketa. *Taberna de los Mundos-en (Bilbo).*
- Urtarrilaren 1etik 31ra arte
BAKARNE ELEJALDEren "Lanzarote" argazki erakusketa. *Portalean.*
- JOSE LUIS MARTINEZ**en "Turkia" argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
- PEDRO ARRIOLA**ren "India" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- Otsailaren 28ra arte
FERNANDO BEORLEGIren "Gogoaren pintzelkada garratzak" erakusketa. Lizarrako Gustavo de Maeztu museoa (martitzenezetik zapatara 11.00-13.00 eta 17.00-19.00; jai-egunetan, 11.00-19.00).

lehiaketak

- **Toribio Etxebarria Sariak 2010.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 24ra arte, www.bicberrilan.com* helbidean.
- **"Aratosteak 2011 Eibarren" kartela.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 28ra arte, Pegoran.*
- **Narruzko Zezen Sariak.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 28ra arte, Hezkuntza Esparruan (943254465).*
- **Industriagintza V. Argazki lehiaketa.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Otsailaren 25era arte, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarte.*

farmaziak

- 30, eguena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 31, barixakua**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 1, zapatua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 2, domeka**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
- 3, astelehena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 4, martitzena**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 5, eguaztena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 6, eguena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 7, barixakua**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 8, zapatua**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 9, domeka**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 10, astelehena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 11, martitzena**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 12, eguaztena**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 13, eguena**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
- 14, barixakua**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.2. Salgai

– Pisua salgai Juan Antonio Mogen. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Aukera ezin hobea. Tel. 659-508607.

1.3. Konpartitzeko

– Logela behar da konpartitzeko. Tel. 688-819475.

2. Motorra

2.1. Salgai

– 20 tonatako Scania markako kamioia salgai lanarekin. Gaitasun profesionala behar da. Tel. 685-724273.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Estetika negoziua traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.
– Garaje itxia salgai Txomon. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai San Pio X-ean. Tel. 650-016440.
– Eibarko erdialdean 70 m²ko loka- la alokagai. Komuna eta barrare- kin. 20 urtetik gorako gazteentzako modukoa. Tel. 679-425467.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 08.00etatik 10.30etara eta 16.00etatik aurrera. Tel. 670-999680.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 616-826542.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-257875.
– Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko: tabernak, pegorak etb. Orduka. Tel. 628-014327.
– Neska gaztea eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 685-765340.
– Neska gaztea eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 663-682150.
– Neska eskaintzen da arratsaldez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 636-383471.
– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 676-035738.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-617818.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan eta jaiegunetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 616-397348.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 665-301550.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Urte biko esperientzia. Tel. 663-682150.
– Emakumea eskaintzen da gaeuz nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129495.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Gaeuz ere bai. Tel. 630-365137.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-005760.
– Neska eskaintzen da orduka lan egiteko, pegorak garbitzeko eta interna moduan. Tel. 646-464300.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta interna moduan. Tel. 690-025810.
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 637-966749.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 686-234612.
– Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 699-706869.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo garbitzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 666-259497 eta 686-149562.
– Emakumea eskaintzen da kamarera edo sukalde-laguntzaile moduan eta etxeko lanetarako. Autoarekin. Tel. 686-149562 eta 650-218238.
– Neska euskalduna eskaintzen da gabonetako oporretan umeak zaintzeko. Tel. 685-778554.
– Neska eskaintzen da orduka umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko etabar. Tel. 679-910991.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Mutil gaztea eskaintzen da umei negeleseko klase partikularrak emateko umei. Tel. 685-765340.
– Txakur-hezitzailea eskaintzen da oinarrizko obediencia, portaera aldatetarako etabarreko klaseak emateko. Tel. 645-724397.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Play Station 2a salgai. Buzz, Eyeroy, Singstar eta beste 22 jokorekin. Ordenagailurako zazpi joko. 150 euro, negoziagarriak. Tel. 658-756462 eta 943-702583.
– Bizikleta bi salgai 6-10 urte bitartekoentzat. Biak 100 euro. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 943-204238. Itziar.
– Solariuma salgai (etzandakoa). 22 lanpararekin eta solariuma bihurtzen den maleta itxurakoarekin. Tel. 658-717754.
– Lur saila salgai. 21.000 m²: 15.000 Maxpen eta 6.000 Kalamuan. 60.000 euro. Negoziagarriak. Tel. 965-876118 edo 649-445104.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Astelehenean, hilaren 13an, laneko karretilla laranja galdu zen Txontan. Eskertuko da. Tel. 605-708637.
– Emakumearen urrezko pultsera galdu da San Andres egunean. Balia sentimental. Eskertuko da. Tel. 943-207785.

6.4. Bestelakoak

– Eibarko lagun bik lagunak nahi dituzte irtetzeko. Tel. 669-911573 eta 658-732727.

AURPEGI TRATAMENDUAK


Berehalako eragina duen

GAZTETZE TRATAMENDUA

ZIMURRAK



lehen



orain

ORBANAK



lehen



orain

Berria!

Mikropigmentazioa
Betileen luzapena / Gel azazkalak
Iraupen luzeko manikura eta pedikura

CAPI

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

Laser fotodepilazioa

ezpainak	10 €
besapeak	50 €
izterondoak + besapeak	100 €
erdiak	120 €
erdiak + izterondoak	160 €
osoak	200 €
osoak + izterondoak	250 €
besoak	120 €
bizkarra	120 €

3x2

- OSTEOPATIA (burezurrekoa, estrukturala, erraietakoa)
- KIROMASAJEA
- TEKNIKA METAMORFIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- REFLEXOLOGIA (ordubete)

Masajeak

Tratamendu lipo-erreduktorea

5 saioekin

30 minutuko
masajea edo
erreflexologia
OPARI

BEGIBISTAKO
EMAITZEKIN
LEHENENGO
SAIOTIK

BERRIA


5 saio

150 euro

30 euro

saio bat

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00



UNIVERSITY of CAMBRIDGE ESOL Examinations

Authorised Centre ES 438 - Deba Durangaldea

MATRIKULAK:
Urtarrilaren 10etik 18ra arte

AZTERKETAK
EIBARREN eta DURANGON

MARTXOKO DEIALDIA

-AZTERKETA DATAK-

F.C.E.	IDATZIZKOA	Martxoak 12, larunbata
F.C.E.	AHOZKOA	Martxoak 12, larunbata
C.A.E.	IDATZIZKOA	Martxoak 11, ostirala
C.A.E.	AHOZKOA	Martxoak 12, larunbata
C.A.E.	IDATZIZKOA	Martxoak 12, larunbata
C.A.E.	AHOZKOA	Martxoak 12, larunbata

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:

<u>ARRASATE:</u>	Parlance	943 77 06 83
	Mondragon Lingua	943 71 20 55
<u>BERGARA:</u>	Espolon School of English	943 76 03 53
<u>EIBAR:</u>	Anglo-American	943 20 64 57
	Link Idiomas	943 20 39 59
<u>ERMUA:</u>	Akerlei	943 17 66 32
<u>ELGOIBAR:</u>	Kensington School of English	943 74 02 36
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44
<u>OÑATI:</u>	Mondragon Lingua	943 71 60 00
<u>DEBA:</u>	Akabi	943 19 16 79
<u>DURANGO:</u>	San Jose Maristak	94 681 00 58
<u>MENDARO:</u>	Akabi	943 75 50 55
<u>BERRIZ:</u>	Speak up	94 622 52 94
<u>ZUMAIA:</u>	Golden Gate	943 86 50 20
<u>MUTRIKU:</u>	Gozoz	943 60 43 58

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75